Herri Aldizkaria
Otamotz
2005eko martxoa 105. alea

Gurera etorkizun hobe baten bila
Etorkinekin solasean

KOLABORAZIOA: IDOIA LUZURIAGA
ELKARRIZKETAK: NAHIKARI BELTZA - DON SANTIAGO
BOTEPRONTOAN: IKER SORALUZE

Opel Astra



OPEL

Altamira lantegiak

Goierriko zerbitzu ofiziala

Matxinporta, 4 - URRETXU - ☎ 943 72 33 71

ARGAZKI ZAHARRA

50eko hamarkadako Santa Isabel egun batean Arrizabalaga familiaren mahaian ateratako argazkia.
Goiko ilaran, ezkerretik eskubira: ..., Juan Jose Arrizabalaga, Nieves Arrizabalaga, ..., ..., Gregorio Legorburu, Kristina Arrizabalaga, Periko Legorburu, Anton Badiola, Ramon Badiola, Iñaki Badiola, Juantxo Arrizabalaga, Mariano Mendiola, ..., Pedro Arrizabalaga eta Ventura Oria. Beheko ilaran, ezkerretik eskubira: Kristina Arrizabalaga, Itziar Arrizabalaga, Anita Arrizabalaga, Martina Arrizabalaga, Tere Legorburu, Manoli Legorburu, Guadalupe Mendia, Francisca Arrizabalaga, Arantxa Badiola, Arantxa Arrizabalaga, Mª Pilar Aranaga, ... eta ...

Aldizkari honek **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** eta **Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura** eta **Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak** eta **Zumarragako udalak** emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73
Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.
Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga
Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.
Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

KLIK ETA KLIK



KLIK ETA KLIK



Ale honetako argazkiak, Herriko Bertsolari Txapelketako kanporaketetan atereak, Josu Perezenak dira.

Gurera etorkizun ho

Lau etorkin familitako kideekin solasean izan

Azken urteotan dexente dira beste herrialde batzuetatik Urretxu-Zumarragara bizitzera etorri diren etorkinak. Hauetako asko beste kontinente batzuetatik etorri dira, ohitura oso ezberdinak dituzte eta bi hizkuntza ikasi behar dituzte. Gurera nola moldatzen diren jakiteko, Dominikar Errepublikatik, Txinatik, Marokotik eta Kataluniatik etorritako lau familiarekin hitz egiten izan gara.

Javier Martin: "Atzerritik datozenek guk baino babes handiagoa jasotzen dute"

Javier Martin urretxuarra Kataluniara joan zen bizitzera duela 20 urte. Duela lau urte, berriz, Urretxura itzuli zen Judith Fernandez emaztearekin eta Sandra eta Nerea alabekin. Javierrek ere primeran daki, beraz, etorkina izatea zer den. "Hemen lan gutxi zegoen eta Gironara joan nintzen. Lan oso ona nuen, baina kudeaketa txarra zela eta, enpresa pikutara zihoala ikusi nuen. Renault, Ikea, Kawasaki... enpresentzat aluminiozko piezak egiten genituen, baina geroz eta okerrago. Hori dela eta, lana utzi nuen".

Katalunian jarraitu beharrean, bertatik alde egitea erabaki zuten. "Urte haietan etorkin asko heldu ziren Kataluniara eta enpresak eskulan merkea hartzen hasi ziren. Hori dela eta, metalaren sektorean askoz ere gehiago irabazten da hemen. Etxea eta autoa ordaintzeko nituen, alaba txikia jaio berria zen, arrebak hemen lan egiteko aukera zegoela esan zidan... eta etorri egin ginen. Zahor enpresan hasi nintzen, baina bi egunetara Aceraliatik deitu zidaten. Momentu onean sartu nintzen. Izan ere, garai hartan jubilazio asko izan ziren eta dagoeneko kontratu finkoa egin didate".

Lan kontuan ondo badoakie ere, Judith-i gogor samarra egin zitzaion hasieran Euskal Herriko bizimodua. "Javierrek aldea nabarituko genuela esaten zigun, baina nik Euskal Herria gustuko dudala esaten nion. Baina oporretan etortzea eta bizitzera etortzea oso ezberdinak dira. Familia han uztea gogorra da eta, gainera, ohitura ezberdinak ditugu. Zorionez jendaurrean lan egiten dut, Carrefour-en, eta horrek jendea ezagutzen lagundu dit".

Javierrek dionez, alabei gutxiago kosta omen zitzaien hemengo bizimodura ohitzea. "Txikiak berehala ikasi zuen euskaraz. Sandrak, berriz, irakasle baten laguntza izan du eta bere ikaskideak ere oso ondo portatu dira. Egun oso nota onak ateratzen ditu eta euskaraz primeran hitz egiten du. Nahiko nuke nik berak bezala hitz egin! Emazteak ere geroz eta hobeto ulertzen du euskara. Irakaslerik onenak etxean ditugu". "Euskara oso erraza da eta!", dio Sandra alabak.

Hala, familia honetan euskaraz, katalanez eta gazteleraz hitz egiten dute. "Alaba txikiarekin katalanez hitz egiten dut, berak euskaraz erantzuten dit eta ulertu ez badut esandakoa gaztelerara itzultzen du. Emazteak eta alaba zaharrenak, berriz, katalanez hitz egiten dute. Edozein momentutan hizkuntza bat edo beste erabiltzen dugu".

Inguruko jendearekin ere ez omen dute komunikazio arazorik, nahiz eta aisialdirako tarte handirik ez duten. "Lau errelebutara lan egiten dudanez, hilean asteburu bakarra libratzen dut. Dena den, noizean behin lagunekin elkartzen gara, Zarautzera edo Zumaiara joaten gara...

pe baten bila

gara euren esperientziari buruz

Dena den, aisialdiari dagokionez, gure bizimodua asko aldatu da. Katalunian geundenean ia astebururo Costa Bravara joaten ginen eta hemen etxean askoz ere gehiago egoten gara. Han aisialdiko eskaintza handiagoa dago: haurrentzako parke estaliak, zaharrentzako dantzatokiak...".

Noizean behin Kataluniara itzultzen dira, noski. "Iaz Primitiban diru apur bat tokatu zitzaigun eta hori oporretara joateko oso ondo etorri zitzaigun".

Urretxu-Zumarragan etxea erosteko, ordea, diru apur bat baino gehiago behar... "Hasieran arrebaren etxean izan ginen, hemen etxe gutxi baitaude alokairuan. Baina familia bakoitza bere etxean bizi behar da eta, azkenean, alokairuzko etxea lortu genuen San Martinen. Duela gutxi Mundo Mejor auzoan etxea erosi dugu nahiko prezio onean, nahiz eta gure adina dela eta kreditua lortzeko nahiko komeri izan dugun. Etxebiden ere izena eman genuen, baina lehen urtean ez genituen beharrezko baldintza guztiak betetzen eta, gainera, 100 etxetarako 800 pertsona egonik... Bestalde, bi udaletako Gizarte Zerbitzuek ez ziguten inolako laguntzarik eskaini. Atzerritik datozenek guk baino babes handiagoa jasotzen dute. Katalunian ere berbera gertatzen da".

Yang Xian Jun: "Hemen jendeak bizitza asko gozatzen duela iruditzen zait"

Yang (Juan) Xian Jun duela 17 urte atera Txina hego-ekialdetik Europara. Madrilen eta Bartzelonan urte batzuk eman ondoren, 1993an "Palacio Oriental" txinatar jatetxea ireki zuen Urretxun. 15 urte dituen Yang Xin alabarekin, Ou Yang 11 urteko semeare-

MURUA
Oinetako konponketa
Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa
Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

DOSS
ZUMARRAGA
Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

Lanbroa
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak...
Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA
Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA

kin eta Xiao Di Yang 8 urteko semearekin eta Yoana-Wang Fang bigarren emaztearekin luzaroan Urretxu-Zumarragan bizitzeko asmoa du.

Yang bizi zeneko Txinako zonaldean Europara etortzeko joera handia omen dago. "Zonalde hartan, Xangai ondoan, bizi maila oso baxua zen. Hori dela eta, gure arbasoak ere Europara etortzen ziren dirua irabaztera. Nire aitona-amonak, esaterako, itsasontzian etorri ziren Europara harri tailatuak saltzera. Ondoren, Frantzian, Holandan... ateratako diruarekin Txinara itzuli ziren".

Aitona-amonen bideari jarraiki, Txinan irakasle lan egiten zuen Yang-ek ere Europara etortzea erabaki zuen. "28 urterekin, bisatua eskatu nuen eta lagun batzuekin etorri nintzen. 1988ko urriaren 6an heldu nintzen Madrilera eta bi urtez jatetxe txinatarretan lanean aritu nintzen. Garai hartan, hona etortzen ginen txinatar guztiok ostalaritzan jarduten genuen. Ez genuen, egun bezala, "Todo a cien" edo maiorista dendarik".

Madrilen zela, Yang-en lehengusu batek Bartzelonan jatetxe txinatarra ireki zuen eta hara joan zen. "Urtebete eman nuen lehengusuarekin lanean eta, ondoren, lagun batek eta biok geure jatetxea ireki genuen Bartzelona erdialdean. Joko Olinpikoen ostean negozioak behera egin zuen eta Euskal Herrira etorri nintzen Eibarko lagun bat bisitatzera. Hemen gure jatetxeek arrakasta zutenez eta paisaia gure jaioterrikoaren antzekoa denez, neure jatetxea irekitzea erabaki nuen. Garai hartan alokairuzko lokal gutxi zeuden, baina Urretxun eta Azkoitian gustuko lokalak topatu nituen. Urretxukoa nahiago nuen, hemen komunikabide hobeak, ospitala... baitaude".

Yang-en 1993ko abenduan ireki zuen Palacio Oriental jatetxea. Txinatar gehienek soldatapean lan egin baino, nahiago dute euren negozioa ireki. "Negozioa irekitzea zaila da, baina lagunen, senitartekoen... laguntza izaten dugu. Norberaren negozioa izatea askoz ere lasaiagoa da familiarentzat: egonkortasuna ematen du, haurrak ez dira eskolatik eskolara ibili behar...".

Urretxun eman zituzten lehen urteak gogorrak izan omen ziren, baina Yang-ek negozioa eta familia aurrera ateratzea lortu du. "1994-95ean egoera ekonomikoa ez zen orain bezain ona, jendeak ez zuen sukaldaritza txinatarra ezagutzen... Adineko jendeak ez du oraindik gure jatetxetara joateko ohiturarik, baina gazteak zaleak dira. Asko borrokatu dugu negozioa aurrera ateratzeko: publizitatea egiten dugu, janaria etxera eramaten dugu... Oso gustura gaude eta bizitza osoa hemen eman nahi dugu".

Bertako jendearekin oso harreman ona duten seinale... "Jendeak kalean agurtzen nau, herriko familia askok gure seme-alabak ezagutzen dituzte dagoeneko... Hiri handi batean baino askoz hobeto bizi gara".

Euskal Herrian oso gustura bizi diren arren, ez dute Txina ahazten, noski. "Etxean Txinako telebista ikusten dugu bertako albisteen berri izateko eta haurrek bertako hizkuntza eta ohiturak ere ezagutu eta gorde ditzaten. Iazko udan Xangain izan ziren, bertako udako ikastaroetan txinatarra ikasten. Haurrak urtero Txinara bidaltzeko asmoa dugu. Zenbat eta toki eta kultura gehiago ezagutu, eurentzat askoz hobe".

Yang oso harro dago bere semealabez. "Alaba 9 urterekin etorri zen Urretxura eta hasieran apur bat kosta zitzaion egokitzea, baina egun oso ondo dago. Ikasle ona da eta familiari asko laguntzen dio: anaiak zaintzen ditu, jatetxean apur bat laguntzen du...".

Ostalaritza oso lotua den arren, aisialdirako tartetxoren bat ateraten dute. "Bilbora edo Donostiara joaten gara haurrekin, hemengo jatetxeetara joaten gara... Bertako sukaldaritza ere oso ona da, batez ere arraina. Txinan aisialdian antzerako gauzak egiten ditugu, baina hemen festa asko daude eta jendeak bizitza asko gozatzen duela iruditzen zait. Dena den, Txina ere asko aldatu da eta orain jendea askoz ere hobeto bizi da".

Dena den, gazte txinatar asko sorterritik ateratzen omen dira oraindik. "Toki berriak ezagutu eta gauzak ikasi nahi dituzte. Hori dela eta, aukera dutenak Txinatik ateratzen dira. Bestalde, orain sarriago itzultzen gara Txinara senitartekoak bisitatzera, bidaiak merkeagoak baitira eta, han bizi maila igo denez, ez baititugu senitartekoentzat lehen bezainbeste opari eraman behar".

Estatu espainiarretik kanpo etorritako 303 etorkin

Urretxu eta Zumarragako Udal langileek pasatako datuen arabera, bi herriotan estatu espainiarretik kanpo etorritako 303 etorkin bizi dira: hauetatik 140 Urretxun bizi dira eta 163 Zumarragan.

Etorkin hauek biztanlego osoaren %2ra ere ez dira iristen, beste eskualde batzuetan baino askoz ere portzentaia txikiagoa. Dena den, gora doan kopurua da, estatu espainiarretik kanpoko etorkin gehienak azken bost urteotan etorri baitira. Euren mugikortasuna ere azpimarragarria da. Hala, epe berean Urretxuko zentsoan 362 alta eta baja egon dira.

Jatorriari dagokionez, bai Urretxun eta bai Zumarragan marokoarrak nagusi dira: Zumarragan 39 marokoar bizi dira eta Urretxun 31. Portugaldarrak, argentinarrak, kolonbiarrak eta txinatarrak ere dexente dira. Azpimarragarria da, baita ere, Urretxun bizi den poloniar kopurua (22) eta Zumarragan bizi den dominikar kopurua (16).

Asma Karim: "Hiru anaia-arrebok euskara maila oso ona dugu eta gure artean euskaraz hitz egiten dugu"

Mohamed Karim marokoarra duela ia 25 urte etorri zen Zumarragara. Urte luzetan familia Marokon izan du, baina duela 6 urte seme-alabek hemen ikastea egokiagoa zela iritzi zuten eta Khadija emaztea eta hiru seme-alaba gazteenak (egun 17, 14 eta 9 urte dituzten Asma, Abderraman eta Rabia) Euskal Herrira etorri ziren. Hiru anai-arreba nagusiek ordurako 18 urte beteta zituztenez, ezin izan ziren gurasoekin etorri. Asmarekin hitz egiten izan gara euren esperientziari buruz.

Mohamed Karim Bilboko senitartekoak bisitatzera etorri zen Euskal Herrira, baina geratzea erabaki zuen. "Garai hartan, hona etortzeko pasaportea besterik ez zen behar. Aita nekazaria zen Marokon eta ondo zihoakion, bere lurrak eta traktorea zituen, baina Euskal Herrian gelditzea erabaki zuen. Alfonbra salmentan hasi zen, zonalde honetan asteko ia egunero azoka dagoenez Zumarragan bizitzea erabaki zuen eta ondo joan zaio".

Hasiera batean, amak eta anaia-arreba gazteenek ez zuten Euskal Herrira etortzeko asmorik. "Unibertsitatea bitarteko ikasketak Marokon egiteko asmoa genuen, baina gero hemengo bizimodura eta hezkuntzara lehenago egokitzea hobe zela pentsatu genuen. Eskerrak duela sei urte etorri ginen, bestela orain etortzea tokatuko zitzaigun eta egokitzapena askoz ere zailagoa izango zatekeen".

Dena den, duela sei urte ere egokitzapena ez omen zen batere erraza izan Asmarentzat. "Etortzeko irrikaz, beste mundu bat ezagutzeko gogoz, geunden. Bi hizkuntza ikasi behar nituela jakin nuenean, ordea, damutu egin nintzen. Izan ere, aitak hitz egiten duen gaztelera eta ni ikasten ari naizena oso ezberdinak dira eta, gainera, bi urte pasa behar nituen euskara ikasten: ez nituen bi urte galdu nahi, ez nuen klasean bi urte gazteagoekin egon nahi...".

Baina Asmak ikasturte bakarra nahikoa izan zuen euskara ikasteko. "Neure buruari urte bakarra galduko nuela, ikasturte bakarrean euskara ikasiko nuela, agindu nion eta lortu egin nuen".

Asma euskaldun peto-petoa da dagoeneko. "Pozik ikasi nuen euskara. Gurasoek euskara ikastera animatu ninduten eta etxean, asteburuetan, erdara lantzen genuen. Izan ere, euskaraz bakarrik bizitzea ezinezkoa da. Azokan askotan tokatu zait euskaraz hitz egiten hastea eta bezeroak ez ulertzea".

Bezero euskaldunek, ordea, sekulako poza hartzen omen dute Asma euskalduna dela jakitean. "Hasieran euskaraz bakarrik nekien eta bezero bati esan nionean ez zidan sinetsi. Oraindik ere euskaraz gazteleraz baino hobeto hitz egiten dut eta gehiago erabiltzen dut. Hiru anaia-arrebok euskara maila oso ona dugu eta gure artean euskaraz hitz egiten dugu. Gurasoekin, berriz, arabieraz hitz egiten dugu".

Karim familia Euskal Herriko bizimodura ondo moldatu den arren, zenbait gauza oso deigarriak iruditzen zaizkie. "Ikasleek irakasleekin duten jarrerak harritu egin ninduen. Marokon irakasleari errespetu handiagoa zor zaio. Han ez genuen irakasleen baimenik gabe klasean hitz egiten eta hemen berdin jarraitzen dut".

Aisialdia ere oso ezberdina da Marokon. "Guk asteburua familiarekin edo lagunekin egoteko aprobetxatzen dugu, ez erosketak egiteko edota gauez ateratzeko. Ohitura horiek oso arrotzak egiten zaizkigu. Mezkita ere badugu, Alameda tabernaren ondoan, baina oso txikia da eta emakumeak ez gara joaten".

Aldeak alde, Asmak oso begiko du euskaldunon izaera. "Euskaldunok berezko izaera duzue, eskuzabalak eta jatorrak zarete. Euskara ikasteko egindako ahalegina zinez eskertzen duzue. Bestalde, baserritar asko ezagutzen ditugu, azoketan lan egiten baitugu eta nire izebak baserri batean lan egiten baitu, eta beraiekin oso harreman ona dugu. Izan ere, aita eta ama ere nekazariak izan dira eta horrek baserritarrengandik hurbil sentiarazten gaitu".

Aipatutako guztia eta ikasketak medio, Asmak, bere anaia-arreba gazteek eta amak hemen bizitzen jarraitzeko asmoa dute. Aita, berriz, Marokora itzuliko da aurki. "Aitak hemen egin beharrekoa egin duela pentsatzen du eta jubilatutakoan Marokora itzultzeko asmoa du. Guk, ordea, hemen jarraituko dugu; ikasketak amaitu arte behintzat. Orain Batxilergoko 1. mailan nago eta batxilergoa egindakoan, euskaraz, ekonomiarekin lotutako zer edo zer ikasteko asmoa dut".

Franklin Olivo: "Sorterria gogoratzea normala da, baina emigratzaileok moldatzeko erraztasuna dugu"

Franklin Olivo duela lau urte etorri zen Venezuelatik, nahiz eta izatez Dominikar Errepublikakoa den. Hona etorri aurretik bazekien, beraz, etorkina izatea zer den. "Bakarrik etorri nintzen, etorkizun hobe baten bila. Zuzenean Zumarragara etorri nintzen, ia 20 urte bertan daramatzaten senitartekoak baititugu. Hemen Venezuelan baino hobe bizi dela esan zidaten, egonkortasun handiagoa dagoela, eta emigratzailea bizimodua aurrera atera dezakeen tokietara joaten denez...".

Franklin lan askotan aritu da bost urte hauetan. "Hasieran Leturiatarren plazako tabernan kamarero egon nintzen. Gero lantegi ezberdinetan egon naiz. Orain arte zortea izan dut: fabrika bateko kontratua bukatu eta berehala beste lan bat lortu dut, ez dut Gizarte Zerbitzuei laguntza eskatu beharrik izan. Amorrazio gehien ematen didana azpikontratazioen kontua da: hamar lan egin eta sei kobratzen dut, enpresako langileek azpikontratatuok baino eskubide gehiago dituzte... Ea behinbetiko lanpostua lortzen dudan!".

Hasiera-hasieratik familia ekartzeko asmoa zuen, noski, baina nahi baino gehiago kosta zaio. "Dokumentazio kontuak direla eta, ia lau urte itxaron behar izan dugu". Isabel Cabrera emaztea eta Rosmery, Wilgeim eta Robinson seme-alabak duela hiru hilabete heldu ziren herrira. Aitak, bigarrengoz emigratu dutenez, prestatuak etorri direla dio. "Emigratzen den lehen aldia eta bigarrena oso ezberdinak dira. Bigarrenean errazago moldatzen zara aldaketetara".

Gainera, hemengo jendeak ondo hartu omen ditu. "Euskaldunak jatorrak zarete eta etorkinak ondo hartzen dituzue. Gainera, jendaurrean lanean hasi nintzenez, berehala egin nituen lagunak. Lankide batzuek gu beroagoak garela esaten didate, baina toki guztietan dago jende hotza eta beroa. Ni han naizenean hangoa naiz eta hemen naizenean hemengoa, erraz moldatzen naiz. Hemen jaio izan banintz bezain hemengo sentitzen naiz. Nire interesa nagoen tokian lan egin ahal izatea, ondo bizitzea, familia mantentzea da eta seme-alabei etorkizun oparoa eskaintzea da".

Hemengo bizimodua eta Latinoamerikakoa guztiz ezberdinak omen dira. "Lanean dagoenak aisialdirako denbora gutxi du, baina denbora apur bat ateratzen dut erosketak egiteko, siesta egiteko... Emaztea eta seme-alabak heldu berriak direnez, asteburuetan ez dugu ezer berezirik egiten oraindik; egonkortzearekin nahikoa dugu. Ahal dugunean bueltatxo bat ematen dugu, baina seme-alabak dira kalean denbora gehien ematen dutenak".

Hauek oso gustura omen daude Urretxu-Zumarragan. "Eskolan gustura gabiltza, ez dugu uste han baino zailagoa denik. Euskara ikastea apur bat zaila iruditzen zaigu, baina pixkanaka ikasten ari gara. Gainera, hemengo lehengusuek nahiko ondo hitz egiten dute jada eta beraien laguntza dugu".

Franklinek, familikoekin ez ezik, inguruko beste dominikar batzuekin ere harremana du. "Beasain, Ordizia, Idiazabal, Legazpin... dominikarrak daude eta denbora dugunean elkarri bisita egiten diogu".

Dena den, herrikideekin ez omen da herrimina sentitzen duelako biltzen. "Norberaren sorterria gogoratzea normala da, batzuetan oroitzapenak pilatzen dira... baina emigratzaileok moldatzeko erraztasuna dugu".

Gainera, Franklin urtero sorterrira itzuli izan da eta hemendik aurrera ere emaztearekin eta seme-alabekin urtero oporretan joateko asmoa du. "Bertan etxea dugu oraindik eta Venezuelan geundenean ere urtero joaten ginen sorterrira. Itzultzen garenean senitartekoei hemengo bizimodua benetan nolakoa den azaltzen diegu, han ere zenbait aurreiritzi baitaude. Hango jendeak hemengo bizimodua oso erraza dela uste du. Hona etortzeko asmoa dutenei ez diet azalpen handirik ematen, etortzen saiatzeko baina hemen dena zoragarria dela ez pentsatzeko esaten diet. Han nagoenean ondo ikusten naute, baina lanean ikusiko banindute ez nindukete hain ondo ikusiko... Hotz handi samarra egiten duela eta Dominikar Errepublikan erabiltzen ditugun atxurrak egiten diren tokian bizi naizela esaten diet. Asko handik etorri eta lau egunetara itzultzen dira".

Franklin, ordea, ez da etorri izanaren damu. "Ez dut ezer txarrik esaterik: ez dut ezer faltan somatu, familia aurrera ateratzeko gai naiz eta ez dut ezer eskatu beharrik izan. Hobera egin dugu eta hobera egitea espero dugu".

Hezkuntza mundua, integraziorako funtsezkoa

Gurera hiriburuetara edo Nafarroako zenbait eskualdetara baino askoz ere etorkin gutxiago heltzen badira ere, etorkinen ailegaerak hemen ere zenbait eragin izan ditu. Izan ere, guztiok jarri behar dugu zertxobait etorkizun harmoniatsua ziurtatuko duen integrazioa lortzeko. Hezkuntza munduak zeresan handia du ahalegin honetan. Gainzuriko Inma Albisuarekin eta Virginia Azpiazurekin, La Salleko Josu Sarasolarekin eta Ikastolako Mertxe Sernarekin hitz egiten izan gara egiten duten lanari buruz.

Duela urte batzuk etorkin kopuruak gora egin zuen eta horrek, hasieran, egonezina sortu zuen irakasleen artean. Izan ere, beste hezkuntza sistema batzuetatik etorri eta ohitura ezberdinak zituzten haurrak ikasturte erdian heltzen ziren eta ikastetxeetan ez zekiten nola lan egin haur horiekin.

Egoera horri buelta emateko, harrera berezia eta errefortzu klaseak eskaintzen hasi ziren beste hezkuntza sistemetatik zetozen haur guztiei. Gipuzkoako Hezkuntza delegazioak, berriz, itzultzaile zerbitzua eskaintzen du. Horretaz gain, Hezkuntza Sailak eskolaratze mahaia sortu zuen etorkinak ikastetxe ezberdinetan banatzeko, etorkinak eskola publikoan pilatu ez zitezen. Etorkinen baliabide eskasia kasuetan, Udalak egiten dira hezkuntza gastuen kargu.

Ekimen hauek guztiak oso garrantzitsuak dira haur etorkinen gurasoentzat ere. Izan ere, askotan oso galduta sentitzen dira, ohitura ezberdinak dituzte, hezkuntza sistema ere ezberdina da... Gainera, familia hauek bi hizkuntza dituen lurralde batera etortzen dira eta irakaskuntza guztia euskaraz izango dela esaten dietenean sustoa izaten omen dute. Dena den, normalean oso ondo onartzen omen dute.

Bertan jaiotako ikasleek eta gurasoek ere zeresan handia dute etorkinen integrazioan. Izan ere, denok onartu behar dugu kultura ezberdinak daudela eta hala gertatzen ari omen da. Hori dela eta, bertako haurrek bere ikaskide etorkinen kulturak lantzen dituzte.

Ikastetxe guztietako ordezkariak oso gustura daude azken urteotan eman diren aurrerapausoekin, baina Hezkuntza Sailak giza baliabide eta baliabide material gehiago jarri beharko lituzkeela uste dute.

Urretxu-Zumarraga mailan, berriz, ekimen oso interesgarria jarri zuten abian Udalek eta hiru ikastetxeek: eskolatik kanpoko euskara klaseak ume etorkinentzat. Ikastetxeetako arduradunen esanetan, klase hauek errefortzu garrantzitsua dira eta ekimenari esker, gainera, ez da eskolaren gain soilik gelditzen ardura guztia eta sarean lan egiten da.

Hasieran etorkinen ailegaerak ikastetxeetan hainbat buruhauste sortu bazituen ere, behar bezalako erantzuna ematea lortu dutela uste dute eta fenomeno hau aberasgarritzat hartzen dute. Egun, etorkin bat helduko zaiela dioen abisua jasotzen dutenean, beste lasaitasun batekin bizi omen dute.

Ikastetxeetako arduradunek etorkizuna begi onez ikusten dute. Izan ere, etorkin jarioak jarraituko du, baina dagoeneko euren burua prestatua ikusten dute datozenei behar bezalako harrera egiteko. Etorkin gehiago etorriko dira eta guztiok ohitu beharko dugu jende berriarekin bizitzera. Hezkuntza munduan, beharra izan dutelako, kultura ezberdinekin bizitzeko prestatu dira eta integrazioa azkartu dute, baina guztiok moldatu beharko dugu. Gainzuriko Virginiak esan zuen moduan, "guk ere hasieran etorri behar zena oso ezberdina izango zela pentsatzen genuen, baina harremanarekin guztiok oso antzekoak garela ikusi dugu".

Idoia Luzuriaga

Kontuz! hauteskundeak datoz

Aurreko batean politikari bati egindako elkarrizketa batean, materia politikoek giza-gaien aurrean zuten nagusitasunaren arrazoia galdetu zioten. Hau da, jendeari benetan interesatzen zaizkion gaiak bigarren edo hirugarren maila batean uztea leporatu zioten. Eta berak zera erantzun zuen: "gai horiek jorratuz gero, komunikabideek ez diguzue arretarik jartzen. Komunikabideei gure arteko liskarrak eta politika hutsa bezala ulertzen dena bakarrik interesatzen zaizuela dirudi". Eta arrazoi puntu bat ez zitzaion falta. Orain, hauteskunde kanpaina aurrez aurre dugula hori argiago ikusteko aukera izango dugu. Hasteko, egunkari, irrati eta telebistan tarte berezia izango dute. Politikariek, herrira gerturatzeko saiakera egingo dute, argazkietan ondo geldituzen delako. Saiakera horretan hirugarren adineko pertsonek eta haurrek, esaterako, argazki berezia eskaintzen dute beti, balore seguruak dira, alegia.

Baina ez dut uste huts egingo dudanik gehienbat elkarren arteko liskar, plan jakin batek ekar lezakeen onura edo arazoak, hauteskunde ondorengo akordioak eta antzeko gaiak nagusi izango direla pentsatzen dudanean. Herritarrok ulertzen dugu norberak bere bidea egin behar duela eta politikak ez duela gure arazorik konponduko, nahiz eta politikariek baietz esan, eta are gehiago, baliabideak zenbaitetan norberaren buruaren onurarako erabili. Baina ez litzateke gaizki etorriko bata bestearen arteko txorakeria gutxiago- orokorrean ez baitzaigu interesatzen, jaun/andreak - eta benetako arazoen inguruan kezka gehiago agertuko balute.

Lan baldintzen urritasuna, etxebizitzaren garestitzea, ingurugiroaren deuseztea, osasun zerbitzuetan itxaron zerrendak, gutxiengoen egoera, jaiotze tasak gora egin ezinak eta batez ere horren arrazoiak, hirugarren adinekoentzat baliabide falta, eta beste zenbait gai dira orokorrean eta egunerokotasunean herritarrari interesatu dakieken gaiak. Batak besteari aurreko mitinean esandakoa politago edo okerrago erantzuten dion entzutea, batzuetan entretenimendu moduan edota partiduen jarraitzaile sutsuen atseginerako balio dezake, baina ez ditu benetako arazoak agerian jartzen.

Hauteskunde kanpainak guzti hori puri-purian jartzeko balio ahal izango du, baina askoz gehiagorako? Noski, ez da bakarrik politikarien errua, komunikabideena ere bada, izan ere bertan "gai gogorrak eta gai bigunen" arteko banaketa egin eta lehenengoei bakarrik eskaini ohi dizkio orrialdeak, edota minutuak. Izan ere erredakziotik irten orduko, kazetariak "badaki" zerk "balio" izango dion. Hau da, zein deklarazio den nabarmendu behar duena, eta hala egiten du. Horrela, zirkulua amaitezina egiten delarik. Politikariak badaki zer esan behar duen paperean ateratzeko, kazetariak uste du badakiela zer nabarmendu behar duen, eta irakurle, entzule edo ikusleak badaki zer aurkituko duen.

Euskal Herriak bizi duen egoera dela eta, gai politikoek interes berezia dutela ezin uka daiteke, eta bertako politikariak zenbaitetan komedia gazi baten protagonista diruditela ere egia izan daiteke (neronek barre egiten dut batzuetan negar ez egiteagatik, eta horretan ez naiz besteetaz ezberdintzen). Baina hemen bizi den "giro politikoak" askotan giza gai horietaz ahaztea dakar eta hori ezin da ona izan. Are gehiago, badirudi politikariek denbora gehiago pasatzen dutela batak besteari nola eta zer erantzungo dion pentsatzen benetan herriari zer eskaini diezaiokeen aurkezten baino. Hori bai, honetan batek besteak baino trebetasun handiagoa erakusten du.

Honen aurrean, herritarra batzuetan aspertu egiten da. Aspertu egiten gara. Aspertu egiten gaituzue. Eta orain, hauteskunde kanpaina bat dugu aurrean. Politikari ezagun batek "herritarren benetako arazoak" dionean, "benetan" zertaz ari den ote dakien galdetzen diot nire buruari...

Ferretería BRAVO, S.L.

-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIAK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxa: 943725431 - ZUMARRAGA

ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

Ba al duzu harremanik etorkinekin? Integrazioaren alde nahikoa egiten al dugu?

Dorleta Ugarteburu

Egia esan, ez dut etorkinekin harreman estuegirik. Palestinar batzuk bizilagun ditut, baina denok ere ez dugu gure aldetik gehiegi jartzen elkar ezagutzeko. Agian, lotsa kontua izango da. Arte Ederretako eskolan ere kolonbiar bat, pare bat txinatar... daude eta arazorik gabe moldatzen gara. Integrazioan beste pauso bat ematea zaila da, ez dakit zer egin beharko litzatekeen.

Aitor Carro

Bai, etorkin batzuk ezagutzen ditut. Klasean, kalean... ezagutu ditut. Harreman ona dut beraiekin, hemengo askorekin baino hobea. Ez genuke integrazioaz hitz egin beharko, denok mundu berean bizi baikara eta toki guztietan etxeko sentitu beharko baikinateke.

Leire Ojanguren

Ez dut etorkinekin harremanik, ez dut etorkin lagunik, ez bizilagunik. Dirudienez ondo integratzen dira, nahiz eta ijitoekin batzuetan arazoak egoten diren. Dena den, integrazio kontua ondo doala dirudi.

Miriam Mendez

Nire aitaginarrebak haur saharuiar bat izan dute etxean azken bi urteetan oporrak pasatzen. Bestelakoan, hemen bizi diren etorkinekin ez dut inongo harremanik izan. Nire ustez herri honetan etorkinekin ez dago arazorik eta harrera ona egiten zaie.

ETXABURU
merenda-lekua

Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

Montajes e Instalaciones Electricas
HERCE
Elektrizitatea, M. E.
Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa
Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392
20700 URRETXU

TABERNA
Iburreta
JATETXEA
Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain
Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Herri Aldizkaria
Otamotz
Publizitatea sartzeko deitu
647319757 edo 607530424
telefono zenbakietara
Merkea eta ona!

BIONA
AROZTEGIA
Altzariak neurrira
☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Nahikari Beltza, oste

Zumarragarrak "Pilla el mando" gaztee

Nahikari Beltza zumarragarrak iaz bukatu zituen kazetaritza ikasketak, baina dagoeneko bere aurpegia Gipuzkoako etxe askotan ezaguna da. Izan ere, Teledonosti telebista katean kamera aurrean lan egiten du: eguraldi-emakumea izan da, erreportaiak prestatzen ditu eta ostegunetan 21:30ean ematen duten "Pilla el mando" gazteentzako saioa aurkezten du. Gustura dabilen arren, kamera atzean lan egitea nahiago omen du.

Non egin zenituen ikasketak?

Duela lau urte Donostiara joan nintzen Deusto unibertsitatean "Humanidades-Comunicación" ikastera eta duela lau urte geroztik bertan bizi naiz. Lehen urtean trenean joaten nintzen, bigarrenean amona batekin bizitzen izan nintzen, hurrengo bi urteetan beste amona batekin izan nintzen eta aurten, dagoeneko lanean ari naizenez, pisu batean nago.

Nolatan amonekin bizitzen?

Aldundiak abian jarritako ekimen baten bitartez. Garai hartan, Aldundiak ekimen honetan parte hartzen zuen agureari 15.000 pezeta ordaintzen zion eta berarekin bizitzera joaten zenari 25.000 pezeta. Horrez gain, egunean bizpahiru ordu eman behar da agurearekin. Lehen amona oso gainean zegoenez eta arauak jarri zizkidanez, ez nintzen oso gustura izan berarekin. Anttonirekin, berriz, oso harreman ona egin nuen. Oraindik astean behin gutxienez bisitan joaten naiz eta bere seme-alabekin ere oso harreman ona dut.

Zer dela eta erabaki zenuen kazetaritza ikastea?

Ez nuen batere argi zer ikasi nahi nuen: Artearen Historia eta Magisteritza ere gustukoak nituen, baina karrera berri hau atera zuten eta interesgarria iruditu zitzaidan. Izan ere, ikasgaiak gustukoak nituen. Komunikazioarekin zerikusia duten arlo guztietara bideratua dago: kazetaritza, enpresa mundua, komunikazioa gabineteak...

Noiz bukatu zenituen ikasketak eta zer egin duzu ordutik?

Iaz bukatu nituen. Unibertsitatean negoen bitartean Arista publizitate agentzian praktikak egin nituen, sormen atalean. Ondoren, komunikabideren bat ezagutu nahi nuen eta praktika gehiago eskatu nituen. Hala, Teledonostikoa atera zitzaidan. Lau hilabetez praktikatan egon nintzen eta pila bat ikasi nuen: editatzen, bideoak montatzen, ahotsa sartzen, eguraldi saioa aurkezten nuen egunero...

Nolatan suertatu zen "Pilla el mando" programarena?

Praktikak bukatu nituenean zuzendariak bere bulegora deitu zidan eta programa bat aurkezteko nigan pentsatu zutela esan zidan.

gunero gure etxeetan

tzako saioa aurkezten du Teledonostin


Nahikari bere lankide Jorge Limiarekin.

Niretzako sekulako aukera zenez, baiezkoa eman nion. Lehen programa irailean grabatu genuen.

Askok ez dugu Teledonosti ikusterik, zer nolako programa da?

Mutil batek eta biok aurkezten dugu, berak gazteleraz eta nik euskaraz. Eskolen arteko lehiaketa da: 14 eta 16 urte bitarteko 12 eskoletako gaztetxoek parte hartzen dute. Programan zehar lau froga egin behar dituzte: antzezlan bat, elkarrizketa bat... Gaztetxoek kazetari, aktore... lanak egin behar dituzte. Saioa gustukoa izan dezakezu edo ez, baina gaztetxoei euren onena erakusteko aukera ematen die behintzat. Eskola baten edo bestearen alde botoa emateko SMSak bidaltzen dira eta epaimahai bat ere badago. Dagoeneko ikastetxeetako azkeneko saioa grabatu dugu eta platoan bi programa berezi eta gala grabatzea besterik ez zaigu falta. Apirilean emitituko den galan hiru eskola onenak sarituko dira.

Gustura al zabiltza?

Ideia oso polita da, baina baliabide gehiagorekin lan egitea gustatuko litzaidake. Ikastetxe bakoitzean egun bakarra dugu grabatzeko eta ez dugu ondo lan egiteko denborarik. Halako programa telebista handiago batean egin beharko litzateke.

Egun bakarrean grabatzen duzuela esan duzu, gainontzeko egunetan beste lanik egiten al duzu?

Informatiboetarako ere lan egiten dut: prentsaurrekoetara joaten naiz, Aurkene Iturriozen albistegirako berriak idazten ditut, elkarrizketak eta erreportajeak egiten ditut... Horretaz gain, Teledonosti ondoan dagoen Punto Radion ere zer edo zer egiten dut noizean behin. Denetik pixka bat egiten dut eta bestelako lan hauek egitea programa grabatzea baino gehiago atsegin dut. Telebistan astelehenetik ostiralera aritzen naiz eta ostiral eta larunbatean Donostiako denda batean lan egiten dut.

> "Teledonostin euskaraz lan egiten duen bakarretakoa naiz, baina inork ez dit ezer esan"

Teledonostin euskaraz lan egiten duen bakarretakoa izango zara...

Saioa euskaraz aurkezteaz gain, erreportajeak eta prentsaurrekoetako atalak ere euskaraz egiten saiatzen naiz. Teledonostin euskaraz lan egiten duen bakarretakoa naiz, baina inork ez dit gaizki iruditzen zaionik esan.

Zure laneko zein arlotan sentitzen zara erosoago?

Berriak jarraitzea gustatzen zait: prentsaurrekoetara joatea, bertan entzundakoa idatzi, bideoa montatu..., baina itogarri samarra iruditzen zait. Izan ere, denbora gutxian ondo lan egin behar da. Hori dela eta, erreportajeak eta elkarrizketak egitea gehiago gustatzen zait: prestatzeko, pentsatzeko, idazteko... denbora gehiago izaten da. Gehien atsegin dudana jendearekin egotea da.

Etorkizunera begira, zer egitea gustatuko litzaizuke?

Egia esan, ez dakit. Karrera iaz bukatu nuen eta asko dut oraindik ikasteko. Dena den, kamera atzean lan egitea nahiago dut. Kamera aurrean oso urduri jartzen naiz eta neure burua oso gaizki ikusten dut, nahiz eta guraso eta lagunek atsegin ateratzen naizela esaten didaten. Irratia ere gustuko dut eta irratian orain arte baino gehiago lan egin nahi nuke. Egia esan, nire ahotsa nire irudia baino dexente gehiago gustatzen zait.

Don Santiago, Urretxu

Urretxu-Zumarragan oso gutxi izango dira Don Santiago ezagutzen ez dutenak. Izan ere, 55 bete behar ditu aurki Urretxuko parrokian lanean eta horietatik 20tan herriko bikario izan zen. Gainera, berak zuzendutako abesbatzetan herritar asko ibili da eta, 84 urte betetzear, goizero-goizero herria zeharkatzen du paseoan. Urte luzeetan herrian lan egin duenez eta Mendiolatarren etxean bizi denez, gazte askok urretxuarra eta abizenez Mendiola dela uste dute; baina Don Santiago jaiotzez lazkaotarra da eta abizenez Garmendia. Mendiolatarren etxean bere bizitzari eta lanari buruzko solasaldia izan dugu berarekin.

Urretxun urte asko daramatzazun arren, Lazkaon jaio zinen eta bertan eman zenituen haurtzaroa eta gaztaroaren zati handi bat.

1921ean jaio nintzen baserri koxkor batean, Intxaurrondo-Txikin. Gure amak zortzi seme-alaba izan zituen. Lazkaon bertan joan nintzen eskolara, eskola publikora. Maisu oso ona izan genuen. Maestro nazionala zen, baina kongregazioaren batekoa izango zen eta euskaldunok errespetatzen gintuen. Erdaraz tutik ere ez genekien, baina erdaraz ikasi nahi genuen. Baserrian lana zegoenean ez ginen eskolara joaten, baina ama gu partikularretara bidaltzen saiatu zen.

Seminariora berandu joan zinen, lehenago lanean aritu al zinen?

Bi anaia zaharrago nituen eta, hamabost urte nituela, ez genekien oraindik baserrian zein geldituko zen. Hori dela eta, lan egin beharra ikusten genuenez, lan bila joan nintzen Ordiziara. Hemen, oinetako egile eta saltzaile baten dendan hasi nintzen eguneroko lansaritxoa irabazten. Hilabete batzuetara Beasaingo "Bernedo y Cía"-tik deitu zidaten. Taller mekanikoan, fresadora batean, jardun nuen. Erreleboan aritu nintzen, beti goizetik, arratsaldetik gau-eskolara joatearren: matematika eta dibujo lineala erakusten ziguten. Bernedotik CAFera pasatu nintzen eta bertan bi urte eman nituen. 1938an sartu eta 1940an irten nintzen.

Handik seminariora joango zinen...

Seminariora 11-12 urterekin joaten zen eta nik ere joan izan nahi nuen. Baina amak "karrera hala egiten dela uste duzu ala?" esan zidan. Amak ez zekien laguntzarik -bekarik edo...- izan zitekeenik ere. Gero, seminarioan zegoen lagun batek animatu ninduen eta hala joan nintzen 1941ean. Lehenago urtebete eman nuen etxean latina eta halakoak ikasiz prestatzen. 1950ean apaizgoa hartu nuen, dagozkion ikasketak gainditu ostean: Humanidadea, Filosofia eta Teologia.

ıko fededunen gidaria

Haurtzarotik zenuen bokazioa, beraz...

Inguruneak asko egiten du. Akolito izan nintzen, familiak sakristautza hartu genuen... Umetatik nire bokazioa elizkoia zen. Batez ere, elizkizunetan ibili ohi ziren abesti, organo doinuak eta abar, oso gustagarriak zitzaizkidan. Apaizgintzara hurbiltzen ninduten. CAFen nenbilela, bazkaldu ondoren, organistarengana joaten nintzen solfeoa ikastera. Txistua jotzen ikasten ere hasi nintzen. Anaia zaharrenak Donostiatik ekarritako txistua nire iloba batek du oraindik. Larunbatetan, CAFetik irten ondoren, Donostiara joaten nintzen Isidro Ansorenarengana ikastera. Kalejiraren batean edo bestean ere jo nuen, herriko txistulari taldearekin. Seminariora joateko erabakia hartzean utzi nuen.

Seminariora berandu joan zinenez, beste apaiz batzuek ez bezala, gaztaro "arrunta" izan zenuen...

Igande arratsaldean egiten genuen festa. Futbola bazegoen futbolera joaten ginen. Beasain, Tolosa, Ordizia... guk ere futbol taldea egin genuen. Futbolera joaten ez baginen zinera joaten ginen, ondoren dantzara eta 20:30etako etxera! Gure anaiarteko gerra tristearen urteak ziren. Beasaingo plazara jai arratsaldez biltzen ginen helduenak geu ginen, 16-17 urteko mutil koskorrak. "Pasodobleak" dantzatzeko moldatzen ginen eta...

Zer moduz seminarioan?

Seminarioa ikastetxe berezia izan da. Apaizgaiak barneko ikasleak izan ohi ginen. Barne bizitza hori araudi baten pean egoten da, apaizgoa hartzen dutenek parrokietan euren eginkizuna egoki eta txukun bete dezaten. Zeregin horri eusteko, seminariora bertaratzen denak nora eta zertara doan ondo ikasia joan behar du. Disziplina berezkoa du seminarioak eta doanak argi badu bere nahia, ez du izango ezintasunik araudi horren barruan. Nik ez nuen ezintasunik sentitu, nahiz eta seminarioak lannekagarriak berekin bazituen ere. Nire seminarioko urteak ez nituen ikasketetan bakarrik eman. Errekreo orduak egunero ilemozketarako hartzen nituen. Ez nintzen bakarra lan horretan. Gure garaian hiru euskal probintzietako 400 apaizgai biltzen ginen Gasteizko seminarioan eta ez zegoen oraindik burusoilik.

Apaiz egitera Gasteiza joan zinela esan duzu, Lazkaotik Gasteiza alde handia nabarituko zenuen...

Astean bi aldiz irteten ginen seminariotik. Dena den, Gasteiz garai hartan

> "Paris Irratiak deiturik, Aita Onaindiaren hitzaldia girotzeko kontzertua grabatu genuen"

txikia zen eta apaiz, moja eta fraile asko zeuden. Hiriak erlijio-kutsua zuen. Hiriak gure mirespena piztu baino, guk pizten genuen hirian mirespena. Ehundik gorako hiru apaizgai talde kaleak zeharkatzen, geu ginen beraientzat ikusmin.

Apaiz eginda, zuzenean Urretxura etorri al zinen?

Bai, baina lehenago beste eskaintza batzuk izan nituen Gipuzkoa bertarako eta kanporako. Oviedotik Covadongako Amaren Elizan mutikoen abesbatza sortzeko apaiz gazte bat eskatu zuten. Haurren abesbatza eratzea nire gustuko lana nuen, baina nahiago nuen Euskal Herrian eratzea abesbatza hori. Horregatik, ezezkoa eman nien.

Urretxun tipleekin lan egiteko itxaropena al zenuen?

Bai. Don Antonio Rey-k seminarioko erretore zen Urretxuko seme Don Felipe Ugaldek, Covadongako bidea hartzen ez banuen, Urretxuko hirugarren apaiz-laguntzaile izendatuko ninduela esan zidan. Eta halaxe gertatu zen. Hemen urte batzuk neramatzala, bi edo hiru parrokitatik lan berean aritzeko deiak izan nituen, baina nahiago izan nuen eskuartean nuen eginkizunarekin jarraitu. Ez dut uste berritzailea naizenik. Bestalde, ni Urretxuko herriarekin oso pozik eta gustura nintzen eta halaxe jarraitzen dut bertan 55 urte betetzear naizela. Eskertzekoa da eta denak eskertzen ditut, hain goxo eta maitekiro onartzen nautelako.

Zer topatu zenuen etorri zinenean?

Hemen hiru apaiz zeuden garai hartan eta koru kontua indartzera bidali ninduten batik bat. Garai hartan "esportatzeko" adina apaiz zeuden Euskal Herrian! Tipleekin bete-betean hasi nintzen eta hamabost urtetan koru kontuan lan egin nuen gehienbat. Horrekin batera, parrokoari laguntzen ere aritu nintzen.

Zer nolako lana egin zenuen tipleekin?

Abestalde bat sortzea ez da erraza. Zailagoa da, ordea, jarraipenari eustea. Hemen zegoen organistak sei bat mutiko zituen, musikarik jakin gabe abesti batzuk buruz ikasi zituztenak. Hauek alde batera utzi eta berriak bilatzen hasi nintzen. Herriko eskola parrokiaren ondoan zegoen eta hemen izan nuen ahots zoliak aukeratzeko erraztasuna. Hasiera 20 bat mutikorekin eman nion. Gerora, urteoro gehiago hartu nituen. Egunero ordubeteko denbora hartzen genuen solfeoa eta abestiak ikasteko. Garai haietan meza eta elizkizun batzuk latinez izaten genituen eta abestiak ere latinez ziren. Abesbatzak asko laguntzen du eliz-ospakizunei behar den garrantzia ematen eta mutikoen ahotsa tartean bada hunkigarria egiten da. 25 bat tipleen abesbatza 15 urtetan zehar beti prest zegoen. Eta ez Urretxun abesteko bakarrik, beste parroki batzuetara ere heldu ginen... Baina urte haiek joan ziren eta, gaur, orduko mutiko abeslari haietako asko aitonak dira... Pasa gaitezen beste galdera batera.

1956an Parisera joan omen zineten.

Don Santiago (behean, ezkerretik lehena) bere anaia-arreba eta gurasoekin. Behean, eskubitik lehena, Urretxun bizi den bere arreba Asun.

1968an lau apaiz zeuden Urretxuko parrokian: Joxe Mari Iztueta, Joxe Ziaran, Pedro Salaberri eta Santiago Garmendia.

Nola izan zen hori?

Parisen "Pueri Cantores" izeneko haur abeslarien nazioarteko elkartea sortu zen eta gu partaide eginak geunden. Bost urtez behin edo, nazioarteko bilkura egiten zen. 1956an Parisen antolatu zuten elkartze hori eta Euskal Herriko bi taldek gonbitea jaso genuen: Gasteizko katedraleko taldeak eta gureak. Kontzertu handia, 6.500 abeslariekin, Parisko belodromoan izan zen.

Garai hartan Parisera joatea ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula izango...

Joan-etorria autobusean egin genuen. Hamabi eguneko txangoaldia izan zen eta 30.000 pezeta ordaindu genuen. Ostatua familietan eman ziguten. Autobusa osatzeko eta ordaintzeko laguntza izatearren, mila pezetaren truke gonbidatuak elkartu genituen. Bideko gastuak-eta ordaintzeko laguntza batzuk izan genituen: Foru Aldundiarena, Urretxuko Udalarena, Velosolex ziklomotor bat ere zozketatu genuen... Paris Irratiak deiturik, Aita Onaindiak egunero ematen zuen hitzaldia girotzeko kontzertutxo bat grabatu genuen. Telebistatik ere gonbitea heldu zitzaigun, baina ez ginen joaten ausartu. Agian telebista ezagutzen ez genuelako...

1965ean parroko lana zure ardurapean utzi zuten.

Don Nicolas nekatuta zegoen eta bata etorriko zela, bestea etorriko zela... zapla!: egun batean niri izendapena. Garai hartan EGB sortu zen, eskola-ordutegia aldatu zen eta, haurrak behartuagoak zeudenez, tipleen abesbatza desagertu zen. Parrokiako abesbatzarekin, ordea, jarraitu egin nuen. Ordura arte, liturgia arauak zirela eta, emakumezkoek ez zuten koruan kantatzeko aukerarik eta aldaketa hori oso onuragarria izan zen. Herriko emakumezkoek oso egoki bete zuten tipleek utziriko zuloa.

Parrokoa izanik parrokian ardura handia hartu behar izan zenuen...

Nire garaian apaiz-etxea, sakristia eta eliza bera konpondu ziren. Katekesia elizan bertan ematen zen eta 6 urtetik 11 urte bitarteko 300 ume biltzen ziren. Katekesia elizatik ateratzea oso ona izan zen. Izan ere, gaur egun plaza kafesne zopa lurrean bota eta jateko moduan dago; baina lehen harea zegoen eta eliza zikindu egiten zen.

Nolatan utzi zenuen bikario lana?

1985ean bihotzeko angina izan nuen eta ez zuten espero bizirik ateratzea: UVItik hilda aterako nintzela uste zuten, kateterismoa egin ondoren hiru bat urte eman zizkidaten... hamar urtera heldu nintzenean, medikuak "beste hamar ere hartuko dituzu" esan zidan. Koadjutore zegoen Jose Maria Iztuetak hartu zuen parrokia eta berari zor zaio gehiena gure parrokiaren berrikuntza. Izan ere, parroko izan aurretik ekonomia kontuak eramaten zituen eta berak eman zituen pauso guztiak. Eliza oso txukun gelditu zen eta bere balioa agerian gelditu zen. Ordura arte, 1570. urtean egindako gaztainondo egurrezko bobeda tapatuta egon zen, saeterak itxita, harri landuak karepean...

Zertan eman dituzu azken 20 urte hauek? Lasaixeagoak izango ziren...

Urduria naiz eta ezin geldirik egon! Parrokian ahal dudana lagundu dut: hiletetan, koruan... Abesbatza duela hiru urte utzi nuen. 20 urte horietatik 15-16 "al pie del cañón" eraman ditut. Oraindik mojei meza ematen diet eta hilero gaixo batzuk bisitatzen ditut.

> "Ez dut behar den hitzik Mendiolatarrak nirekin egiten ari direna behar adina eskertzeko"

Oinez makina bat kilometro ere egin dituzu...

Kardiologoak jai eta aste egunean 10 kilometro egiteko esan zidan. Ordura arte ez nintzen batere ibiltzen, baina horrek salbatu ninduela uste dut. Egunero herriari hiru buelta ematen nizkion eta gero herri irteeraraino joaten nintzen. Orain bost kilometro egiten ditut egunero.

Bestalde, egunkaria idazten omen duzu.

1991tik, memoriari eusteko. Egunero, gauean, egunean zehar gertatutakoak idazten ditut, eguraldi kontuak... San Valentin de Berriotxoaren biografia txiki

Urretxura etorri eta gutxira, 1952ko Gabonetan, herriko haurrekin.

bat ere idatzi nuen Patxi Epelde lagunarekin batera, gero bizkaitar batek bizkaieraz jarri zuena. Bertsozalea ere banaiz eta bertso batzuk egiten ditut, nire adiskide eta familiakoren bat zoriontzeko.

Lehenengo zita atzeratu egin zenuen, telebistan Athletic-en futbol partida zela eta...

Pilota eta futbola atsegin ditut, gure garaian ez zen besterik. Lazkaon, festetan, Argiñanoren familiakoek jokatzen zutela gogoratzen dut. Futbola ikustera, berriz, Ordiziara, Beasainera... joaten ginen. Apaiz egin eta gero, tipleak Reala ikustera eramaten nituen. Nota jartzen nien eta merezi zutenak, hiru bat, eramaten nituen aldiko. Gaztetan guk ere jokatzen genuen pilotan eta futbolean.

Urretxun 55 urte betetzear omen zaude, urretxuartzat izango duzu zeure burua...

Bai, noski. Urretxuar peto-petoa eginik nago. Nire arrebarekin etorri nintzen, baina bera ezkondu zen eta ezkonduak bere kabia nahi du... Kabi horretatik, anaia ahaztu gabe, bereak kuttun-kuttun zaintzen jarraitzen du. Gauza bakoitzari bere lehentasuna eman behar zaio. Ez nintzen, ordea, umezurtz geratu: Urretxuko parrokiak ez zuen oraindik telefonorik eta 1955eko martxoaren 9ko gauean Engraxi Mendiolari telefono kontua aipatu nion. Engraxik euren etxera eraman ninduen, afari ordua, gonbitea... eta Joan Kruz Mendiolak eta Anjela Salegik doan hartu ninduten "ebentual"... gaurdaino. Ez da nire etxea, baina etxekotzat hartu ninduten eta hala jarraitzen dut. Ez dut behar den hitzik nirekin egiten ari direna behar adina eskertzeko.

Zer nolako apaiza zara?

Izakeraz, amaren eraginez, perfekzionistak gara. Bestalde, beti besteak irainduko ditugun beldur izaten gara. Baina gauzak zuzen egin nahi dituena zorrotza izaten da eta bat baino gehiago iraintzea gerta daiteke. Inor iraindurik banu, bertatik barkazioa eskatzen diot.

Bukatzeko, Don Santiago, zer edo zer gehiago esan nahi al zenuke?

Lehendabizi, eskerrak eman nahi dizkizuet Otamotzeko orrietan Urretxu-Zumarragako herritarrekin solasaldi baterako gunea eman didazuelako. Adinekook asko estimatzen dugu ingurukoen ardura eta agurra. Bestalde, apaiza gizon-emakume guztien zerbitzurako elizgizon eta herrigizona da. Hori dela eta, nahiz eta 83 urte bizkarrean, apaltasun osoz diot, inork niregan laguntza aurki dezakela uste badu, beraren zain geratzen naizela ahal dudana egiteko. Gainontzean, elkarrizketa honetan ezer onik aurkitzen baduzue, onartu; okerrik balitz, berriz, barkatu.

HARATEGIA URDAITEGIA
✆ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

colors
arropa informala
Barrenkale
Urretxu
943 72 40 57

UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

Elurra: batzuen poza, be

Aurtengo neguaren gogortasunak arlo guztietan izan du eragina, baita kirol munduan ere. Hala, batzuentzat negu oparoa izan da eta besteentzat ezin okerragoa. Aurtengo elurrak eskiatzaileei mesede egin die eta txirrindulariei, berriz, kalte. Batzuek eta besteek negua nola bizi izan duten jakiteko Guti kirol dendako Javier Gutierrezekin eta Goierri Kirol Elkarteko zikloturismo saileko lehendakaria den Iñaki Urdangarinekin izan gara.

Argazkiak: Gotzon Aranburu eta Iñaki Urdangarin.

Javier Gutierrez: "80ko hamarkada geroztik ez da hain urte oparorik izan"

Javier Gutierrezek inguru honetan eskia batere ezaguna ez zen garaietan ekin zion kirol hau egiteari, duela ia 40 urte. "Piriniotara dexentetan joaten ginen eta eskiak zituzten frantsesek elurretan gutxiago hondoratzen zirela eta azkarrago jaisten zirela ikusi genuen. Hori dela eta, bigarren eskuko eski xaflak erostea erabaki genuen. Egungoen oso ezberdinak ziren eta mendiko botekin jartzen genituen".

Ordutik, Gutierrezek orduak eta orduak eman ditu eskiatzen eta zaletasun honen gorakada gertu-gertutik ezagutu du. Duela hamar urte, besteak beste eskiatzaileei zuzendutako kirol denda irekitzea erabaki zuen. "Hamar urte hauetan eskiatzeko materialaren salmentak, muntaiak eta konponketak nabarmen egin du gora. Egun lehiaketetan parte hartzen duten herritarrak ere badira, Mikel Navarro eta bere neska esaterako".

Javierrek ezagutzen dituen herriko eskiatzaile gehienek mendiko eskia egiten dute eta Piriniotara joaten dira oro har. "Hemengo jendea Huescara, Luzera, Gavarniera joaten da batik bat. Elurra dagoenetan gertuago dagoen Errioxako San Lorenzora ere joaten gara. Aurten oso pozik gaude, toki guztietan elurra baitago eta hemen bertan eskiatzerik izan baitugu: Izaspin, Aitzgorrin...".

Dendaria ere badenez, pozik egoteko arrazoi bikoitza du Gutierrezek. "Jende dexente etorri da eski xaflak alokatzera. Gainera, mendiko boten, eskularruen, txanoen... salmenta nabarmen igo da aurreko urteekin alderatuz".

Gainera, ekaina bitartean eskiatzeko aukera izango dela uste du. "80ko hamarkadaz geroztik ez da hain urte oparorik izan. Zenbait urtetan maiatza bukaera arte mendiko eskia egiteko aukera izan dugu eta aurten ere, hotzak eusten badio, hala izango dela uste dut".

Iñaki Urdangarin: "Gutako asko urtarrila eta otsailean ez gara bizikletan ibili"

Eskiatzaileentzat negu oparoa izan dena, txirrindularientzat negar egiteko modukoa izan da. Zikloturisten lehendakari Iñaki

steen atsekabea

Urdangarinek esan digunez, aspaldiko aurredenboraldi kaxkarrena izan da aurtengoa. Izan ere, tenperatura baxuak eta errepide izoztuak txirrindularien etsaiak dira. "Bizikletan, abiada hartzen denez, sekulako hotza nabaritzen da. Errepidea izoztua egotea, gainera, oso arriskutsua da".

Egun bi zikloturista moeta omen daude: "Ekainean izaten den 200 kilometro pasatxoko Quebrantahuesos froga egiten dutenak eta igandeetan ateratzen direnak. Lehenengoek ezin dituzte bi hilabete entrenatu gabe galdu eta aukera izan duten guztietan atera dira. Eguraldi *ona* egin duen bakoitzean atera behar izan dute, beste zeregin batzuk gerorako utzita. Egun oso hotzetan ere atera beharra izan dute. Besteok asteburuetan ibiltzen gara eta Errege Egun ondoren hasten gara entrenatzen, opariak estreinatzeko aitzakiaz. Aurtengo neguan, ordea, asteburuetan eguraldi bereziki txarra egin du eta gutako asko urtarrila eta otsailean ez gara bizikletan ibili. Ez zaigu axola beranduago hastea, urtea oso luzea da".

Dena den, ez omen dute denbora alferrik galdu. "Bizikletan igandeetan ibiltzen garen gehienok, neguan mendira joaten gara. Aurten sekula baino gehiagotan joan gara mendira".

Aurtengo neguko hotzak, elurrak eta izotzak, prestaketa oztopatzeaz gain, Goierriko zikloturisten denboraldi hasiera atzeratu du. "Egutegiko lehen txangoa martxoko lehen asteburuan izaten da eta txango jendetsuena izaten da, baina aurten bi lagun bakarrik azaldu dira hitzordura. Hori dela eta, denboraldi hasiera astebete atzeratu dugu".

Hala, martxoaren 13an egin zuten lehen txangoa. Urriaren 16a bitartean ia igandero goizero, Goierri elkartearen egoitza azpian elkartuko dira bueltatxoa emateko: apirilean 9:00etan, maiatzean 8:30ean, ekainean eta uztailean 8:00etan eta irailean eta urrian 9:00etan.

Gehienetan Urretxutik bizikletan abiatuko badira ere, bost irteera autobusean egingo dituzte. Uztailaren 17an, aspaldiko partez, Frantziako Tourra ikustera joango dira. Txirrindulariak Saint Lary Soulan-era joango dira autobusean eta, ondoren, Pla d'Adet eski estaziora igoko dira bizikletan Tourreko 15. etaparen amaiera ikustera.

Zikloturistek beste lau txango berezi ere antolatu dituzte aurtengo denboraldirako. Apirilaren 28an Segoviara joango dira "Ruta del lechoncillo" deritzona egitera eta maiatzaren 2an itzuliko dira. Ekainaren 17tik 19ra Aran bailaran izango dira, uztailaren 29tik abuztuaren 3ra bitartean Asturiasen izango dira eta, bukatzeko, irailaren 10ean Kantabriara joango dira.

EDURNE
GIZONEZKOEN JANTZIDENDA ESKUZ ALDATU NAHI DA
☎ 943 72 14 17

Varmanki
Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

ALTZARIAK
MERKA-UROLA
Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

centro óptico
JavierArratibel
optika
Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak
Soraluze, 10 ZUMARRAGA
✆ 943 72 54 84



ARKUPE TABERNA

Iker Soraluze

Iker Soraluze, Urolak eman duen eskubaloi jokalari onenetakoa izateaz gain, bertsolaria ere bada. Zalantzarik gabe, Herriko Bertsolari Txapelketako errebelazioa izan da.

Ikerrek Ikastolan eta Lizeoan egin zituen unibertsitatea bitarteko ikasketak. Ondoren kimika ikasten hasi zen, baina utzi egin zuen. Ingurumen Teknikari modulua egin ondoren, bost urte eman zituen Trokei enpresan lanean. Iazko abenduaz geroztik, berriz, Irok enpresan lan egiten du.

Langile fina denik ez dugu zalantzan jarriko, baina Ikerrek eskubaloi munduan eman du bere onena. "8. mailan eskubaloian jokatzen hasi nintzen eta hobekien kirol horretan moldatzen nintzela ikusi nuen. Hurrengo urtean jada Urolan hasi nintzen". Dagoeneko, Iker Urolaren eskubaloi taldeko beteranoena da. "14 urte daramatzat eta egun taldeko zaharrena eta beteranoena naiz, 28 urte besterik ez ditut! Gutxi dira Urolan nik bezainbeste partida jokatu dituztenak".

Denboraldi hau, lesioak direla eta, nahiko kaxkarra izaten ari den arren; Ikerrek jarraitzeko asmoa du. "Eskubaloia asko gustatzen zait, ondo pasatzen dut eta, gainera, konpetizioa atsegin dut".

Aipatu bezala, Iker bertsozalea ere bada. "Txikitatik naiz bertsozalea. Telebistako saioak ikusten ditut, herrian antolatzen diren bertso jaialdietara joaten naiz eta, denek bezala, larunbat gauetan, lagunartean, egur pixka bat ematen dut. Bertso eskolan ere hasi nintzen, baina larunbat guztietan ez nago hemen eta gauzak erdizka egiteko, nahiago ez egin". Aurtengo Herriko Bertsolari Txapelketako errebelazioa izan da, baina ez omen du bere burua horretarako berezi prestatu: "Trikimailu txiki bat erabili besterik ez dut egin".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Arkonada.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Lagunekin ibili, Play-Station-ean jolastu...

-Bizitzeko toki bat?

Urretxu.

-Gustuko eskubaloi taldea?

Urola eta Bidasoa.

-Gustuko eskubaloi jokalaria?

Enric Masip.

-Eta Urolakoen artean?

Tomas Andueza, "Pitu".

-Gustuko bertsolaria?

Sebastian Lizaso.

-Eta herrikoen artean?

Gorka Ojanguren.

-Poto asko egin al dituzu bizitzan?

Batzuetan bai, baina ez askotan. Dena den, besteek erantzun beharreko galdera dela uste dut.

-Bizitzan neurri handian ala txikian aritzea nahiago?

Nire neska begiratuta, neurri txikian nahiago dudala esan beharko dut...

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Denak, baita ilegorriak ere. Horretan ez dut arazorik.

-Egindako azken oparia?

Argazki kamera bat.

-Eta jasotakoa?

Belarritako bat.

-Data bat?

2003ko urriaren 1a. Egun horretan tabakoa utzi nuen.

-Neska eta mutil izen bana?

Neska izena Josebe eta mutil izenen artean "tz" dutenak atsegin ditut.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

DV eta orain Hitza ere bai.

-Gustuko telebista saioa?

Normalean filmak ikusten ditut.

-Bereziki gorroto duzuna?

Telebista munduan ideia berri gutxi daudela iruditzen zait. Formatu arrakastatsuak gehiegi errepikatzen dituzte, aspertu arte.

-Liburu bat?

Umorezkoak eta akziozkoak atsegin ditut.

-Filme bat?

"El otro lado de la cama".

-Soinu bat?

Iratzargailuarena ez behintzat...

-Usain bat?

Pasapalabra.

-Janari bat?

Pasta.

-Ura ala...

Gintonic-a.

POLITENA

Eguneroko menua
Plater konbinatuak
Goi mailako pintxoak

Astelehenetan itxita
Kalebarren, 6 - Zumarraga - 943 721 767



autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako mintegiak

Informatzeko eta izena emateko:
902 252 595
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Softwarea eta Aplikazio Informatikoak Alokatzeko Zerbitzuak

Apirilak 7

Teknologia azkar zaharkitzen da. Softwarea alokatuz gero, programak erosteko **kostu finkoez ahaztu eta ez duzu instalazio eta mantentze lanaz kezkatu beharrik izango.** Mintegi honetan, zerbitzu hauek kontratatzeko diru laguntza nola lor dezakezun ere erakutsiko dizugu.

Nola egin online finantza erakundeekiko eragiketak

Maiatzak 12

Ordainketak, transferentziak, mugimenduak,... **Edozein unetan eta banketxera joan beharrik gabe** egin ditzakezu zure eragiketak Internet bidez, diru eta denbora gutxiago erabiliz.

Nola ezarri Merkataritza Elektronikorako sistemak

Ekainak 9

Erosteko eta saltzeko Internetek aukera asko ematen dizkizu. Negozio edo enpresa txikia baduzu, Merkataritza Elektronikorako sistemak nola aplika ditzakezun azalduko dizugu eta **nola baliatu Internet zure produktua segurtasun eta konfiantza osoz saltzeko.**

Goierri - Urola Garaia
ORDIZIA Goierri Lanbide Eskola
Ordutegia: **18:00-20:00**

Antolatzailea:

Miramon
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

euskadi

e·gipuzkoa

SPRI